

## Kale itsu baten dirdaiak

**Bixente Serrano Izko**

"Mirarien kalezuloa"  
Nagib Mahfuz  
euskaratzailea: Patxi Zubizarreta  
Alberdania / Elkar, 2006

Kalezulo baino gehiago kale itsu bateko mundua da Nagib Mahfuz-ek pintatzen diguna. Ez dakit Patxi Zubizarretak itzuliriko izenburu horrek, *Mirarien kalezuloa*, ez ote duen estuegi lotzen Mahfuz-en nobela Victor Hugoren Mirarien Gortea izeneko bertze kale harekin.

Gure euskara, diglosiko ez ezik, *pluriglosiko* ere dugula erran beharko genuke. Nobela honen itzultzaileak berak gaztigu ematen digu ez duela jatorrizko bertsiotik itzuli, baizik eta "frantsesetik gehienbat, baina gaztelaniazkoaren eta ingelesezkoaren laguntzarekin". Berdin gertatu ohi da gure euskarazko idazleen obrak frantsesa edo gaztelania ez diren bertze hizkuntzetara itzultzen direnean: ez ohi dira lehen eskuko bertsioak, gaztelania edo frantsesezko bigarren bertsioen itzulpenak baizik. Gutxiegi gara euskaldunok hizkuntza askotatik euskaratze zuzenekin amets egiteko, eta are gutxiago dira bertze hizkuntzetatik euskarazko testuetan murgil daitezkeen itzultzaileak. Patxi Zubizarretak Mahfuzen nobela honetaz erraten digun bezala, "oraingoz bertsioen bertsio honekin askietsi behar"; kontaezinezko zeharkako bertsioekin, gehitu beharko, munduko hizkuntza gehienetatik lortuko baditugu hainbat eta hainbat harribitxi.

Eskertzekoa da Patxi Zubizarretaren lana, zubi ederra egin baitigu irakurle euskaldunoi jende arruntaren mundu egiptoar eta musulmanean sartu ahal izateko, bertako deskribatzaile baten eskutik. Halarik ere, sarreran apuntatu dudanaren arabera, nik neuk, aukeran, egokiago ikusiko nuke *Midak kalezuloa* izenburua, Zubizarretak berak eskaintzen dizkigun euskarapen posibleen artean. Pertsonaia miragarriez josirik dago nobela, bai, baina Midak kalezulo horretako auzoek zerikusi gutxi dute Mirarien Gortekoekin. Kale itsu bateko pertsonaiak dira, gizarte maila ertain eta xehekoak, zulo horretan egokitu beharrekoak, eta, kale itsuak berak bezala, irtenbide bakarra, beti ere zorigaiztokoa, dutenak: kanoi-, prostituzio-, kartzela- edo erlijio-bazka dira zulo horretatik ateratzen tematzen direnak. Kalezuloko giza komunitatean dute egokiera bakarra, nola edo hala biziraunen badute.

Protagonista kalezuloa bera da, itzultzaileak erraten digun bezala, baina bertako pertsonaien bizipenek eta ibilerek ematen diote bizitza; gehien bat mundu oso baten deskribapen bizia da, baina argumentu mehe eta efikaz batez baliatzen da Mahfuz, berez deskribapen bat dena narrazio baten erritmoaz arintze aldera. Kale itsua da mundu horren sinbolo betea, eta narrazioa dugu errainu mugikorrek igortzen dizkigun miraila.

*Nafar periferiatik*, 2007-04-13